



**ITSASONDOKO  
UDALA**



## **Martxoak 23, Astelehenetik aurrera, mediku/erizain kontsulta Ordizian**

Koronabirusaren krisiari aurre egiteko, Goierriko Osasun Erakundeak jakinarazi digu datorren astelehenetik, martxoaren 23tik, aurrera, Itsasondoko kontsulta itxi egingo dutela, antzeko kontsultategi txiki guztiak bezala, osasun-arreta centro batzuetan elkartu eta antolatu ahal izateko. Gure kasuan, gertuenekoa Ordiziakoa izango da, Koro eta Arantxa bertan izango dira lanean.

Paziente bakoitzari banan-banako balorazioa egingo zaio telefonoz, aurrez aurrekoa eta etxeko osasun-arretak bermatuta egongo dira.

Koronabirusa oso kutsakorra da eta Itsasondon, oraingoz, kutsaturik azaldu ez bada ere, inguruko herrietan bai eta kontuz ibili beharrean gaude. Denok dugu gure etxeetan egoteko agindua eta erantzukizunez jokatu behar dugu. Mesedez, ez atera etxetik behar-beharrezkoa ez bada eta, hala denean, higiene neurriak errespetatu.

Eta gogoratu, laguntzarik behar izanez gero, goizez (08:30etik 13:30era) udaletxea deitu 943 88 11 70 edo, beharra arratsalde sortuz gero, 644 98 44 67 telefonora 20:00ak bitartean.

Ez zalantzarik izan, guztion artean egingo diogu aurre egoera zail honi.